

Karkara

karkara.com

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2015eko apirilaren 24a · 361. zenbakia, 26. urtea



Hezkuntza eredu berrien bila

Haurren hazkuntza autonomoa du helburu Kimabe elkarteak eta Zingira Kanpinean elkartzen dira proiektua aurrera eramateko.

10

Sokari tiraka
Arturo eta Eneritz

14

Elkarrizketa
Berdin-Berdinak

29

Adarretatik helduta
Meltxor Artetxe

32

Udalaren txokoa
Motondo

Portu ERRETEGIA
 Sainio, Errika Auzoa, 46
 943 89 34 04
 30809 AIA-ORIO
Irakurri, ikusi eta gustatu
gure irakurle onenak gurekin

BODEGAS Gailur
 20000 ZARAUTZ
 Tel: 943 83 00 00
 Fax: 943 83 00 00
 www.bodegasgailur.com

ZUDUGARAI
Gabriel's Traditions
 Tel: 943 83 00 00
 Fax: 943 83 00 00
 www.zudugarai.com

tel/fax: 943 89 00 69
 Bidea kalea 4 - 20600 ZARAUTZ

URBIDE
 ITURGINTZA, BEROGINTZA
 GASA_BAINU ERAKUSKETA
 freixebak konturak jabe

XS
 obra
 proiektuak
 eremehabilitazioak
 txostenak
 erakuntza zerbitzuak
 ITEak
 eraikinen mantenua

arkitektura

barja agirresarabe lapetegia
 henko-baita 6, behea
 20600 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
 9 4 3 1 3 4 3 5 8
 xs@xsarkitektura.com

zkue
 Tf: 943 130 438
zkue

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

ITZALA
Kortxe jakitzeko
atzeratu
 tel. 943 83 12 51

Seguros Bilbao
 Orioko ordezkaria

Santi Barranco
 Tel: 616581398
 Arizaga, 2 - 2ª eskerre
 20810 Oriu (Gipuzkoa)
 e-posta: sbarranco@seguroshilbao.com

KAJUA
 TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, KAJUARA
 BOKATA EDERRAK JATERA
 Amakur portua 35, behea
 Tel. 943 840 000

arkaitz taberna
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Carmen eta Txomin
 ARRANDEGIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

361

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasalzuze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako kolaboratzaileak

Meltxor Artetxe,
Arturo Elosegi,
Manu Etxeberria,
Peru Iparragirre,
Iban Lertxundi
Garbiñe Manterola
Eneritz Odriozola

Diseinua

Saioa Perona

Banatzzaileak

Nora Pielago eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berri eman daiteke, osorik edo zatik, baldin eta iturria aipatzen bada.



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Eusko Jaurlaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Apirilaren 19an etorkinez betetako ontzi bat hondoratu zen Mediterraneoan. RNV

HASI BERTSOTAN

EGOITZEZAGIRRE (DOINUA: HAMALAU HERIOTZENA)

Mediterraneoko izeberga

1

Mediterraneoa epela da berez, inoiz oporraldian eman digu babes, baina azken aldian bete da hilotzez. Zer da mila bizitzak egitea ihes? Hoixe, izeberg-aren punta besterik ez.

2

Latza da izeberg-ak bistan dakarrena, baina Europak lehengo hanketik herrena! Gerratik ta gosetik ahal den azkarrena ihesean Afrika urpean barrena, ez dugu ikusi nahi hori da txarrena.

3

Ustiatzen ditugu hango itsasoak, hango ikatza ta bitxi, ta hango basoak. Sortzen ditugu hango gerrak, arazoak... ta inork emanez gero honanzko pausoak, izeberg-etik gertu daude marrazoak.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.eus

Tertulia dialogikoa

Aiako Lardizabal eskolan, aurtengo 2014-2015 ikasturtean tertulia dialogiko batzuk antolatzea erabaki dugu.

Hurrengo tertulia maiatzaren 7an izango da 16:30etan eskolan. aiakoteruliadialogikoak.blogspot.com-en aurkituko duzue landuko den testua.

■ **Lardizabal Eskola**

Aiako bi arnagune

Martxoaren 14a, larunbata, futbol-partidua Orioko Mendibeltzen. Begira, gizonetzko bat eta emakumezko bat berriketan. Gizona gaztelaniaz ari da, emakumea euskaraz. Biak riki-raka, biek ere elkarri primeran ulertzen diotela. Gizonezkoa ez delako ondo moldatzen euskaraz hitz egiten? Auskalo! Hogeitabat minutuz isildu ere egin gabe aritu dira, bakoitza hizkuntza batean, errespetu osoan, komunikazioa primeran gauzatu.

Martxoaren 15a, igandea, Agorregiko burdinolan. Bertako gida bat kanpotar talde bati gaztelaniaz ari zaio burdinola erakusten. Beste gida bat bakarrik dago. Oinez bisitari bat iritsi da. Gidak oso adeitsu galdetu dio: *bisitan al zator?* Baietz. Euskaraz edo gaztelaniaz nahi duzu? Euskaraz, noski. Gidaria prest pertsona bakar bati instalazio guztiak erakusteko. Primeran ari da azalpenak ematen: historia, ekonomia, teknologia, olagizonen bizi-baldintzak... Bisita aurreratuta dagoela, beste hiru bisitari bertaratu dira, kanpotarrak, ez dakite euskaraz. Aurreko bisitari bakarrik gidariari esan dio gaztelaniaz egiteko aurrerantzean. Gidariak ezetz, handik gertu talde batekin ari dela gaztelaniaz bere lankidea eta talde hartan sartzeko, berak euskaraz segituko duela kide bakarreko taldean, euskararen eskaintza bermatu egin nahi duela.

Bi pasadizo asteburu batean. Protagonista Aiako bi neska: Marije eta Izaskun. Aia euskararentzat arnagune ederra dela erakutsi zuten bi neska. Bepasadizo! ■ **Futbolzale ibiltaria.**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, gure egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

Hauteskunde mahai-ingurua eta zenbaki berezia

Maiatzean, izango dira udal hauteskundeak eta, bezperatan, ohiko legez, mahai-ingurua antolatu du KARKARAK. Maiatzaren 7an izango da, arratsaldeko 19:00etan, kultur etxean.

Mahai-inguruko edukia Karkara ale berezi batean bilduko dugu, politikari lotutako informazioarekin batera. Maiatzaren 15ean kaleratuko dugu alea, ostiralarekin. Aiako eta Orioko etxe guztietan banatuko dugu.

■ **KARKARAKO lan taldea.**

Alkatearen oharra

Apirilaren 10ean eta 11n, Aian inoiz izan dugun kirol ekitaldi garrantzitsuenaz gozatzeko aukera izan genuen. Mundu mailan, txirrindularitzan alorrean, ikus dezakegun ekitaldi handi netakoa, gaur egungo txirrindulari onenetakoak bertatik bertara ezagutu eta ikusteko aukera. Bi egun zoragarri eta zirraragarriak.

Baina bi egun hauetako ekitaldia antolatzeko lanak ez dira nolana hikoak izan eta horregatik lehenik eta behin bi egun hauetan lanean jardun duzuen guztiei eskerririk asko eta batik bat, bi egun horietaz gain aurreko hilabetee-

tan lanean jardun duzuen talde osoari. Arrakastaren zati handiena zuena delako.

Ez ditut aipatu gabe utzi nahi, antolakuntza guztiari aurre egiteko diruz lagundu gaituzuenak: Urratz, Giroa, Murias, Kanua, Jauregi, Aize Berri, Ederpack, Alustiza eta isilpean eskeinitako beste bat edo beste. Eskerririk asko. Eskerririk asko baita ere bere etxeko atak zabaltzeagatik Joan eta Clarari; Azpiroz-Arregi familiari lursaila txukuntzeagatik; Arrojeriatarrei emandako erraztasunagatik. Eta Joan Etorle, Mahastisoro, Maria Aurizenea eta Armengigain kaleko bizilagunei, izandako ulergarritasunagatik. Baita ere, frontoian lanean jardun zenuten emakume taldeari ere, hango etekinak antolakuntzari emateagatik. Eta, oro har, herritar orori, bakoitzak, bere erara jarri baitu ahalegintxo bi egun zoragarri hauetan.

Eta azkenik, txirrindularitzako zaleei, zuen animo eta txaloengatik eta batik bat antolatzaileen aginduak errespetuz bete dituzutelako.

Akatsak jasan dituzuenei ere nire barkamenak, inolako borondaterik gabe eginak izan dira.

Besterik gabe, ahaleginak bere fruitua eman du eta horrela aitortu digute, baina pribatuki, bai publikoki. Zorionak Aia. ■ **Igor Iturain, Aiako alkatea**

Eskerrak emanaz

Beranduegi izan gabe, lerro hauen bitartez Zaragueta Herri Eskolako kideok gure eskertza plazaratu nahi diegu Herrio Natur Taldeari eta Goiko Kaleko Festa Batzordeari Korrika Oriotik pasa zenean eskaini ziguten laguntzagatik. Korrika Batzordeak urtero bezala zozketa bidez banatzen ditu herriko kilometroak, eta bigarrenez jarraian, herri-erdigunetik urrun tokatu zitzaigun aurtengoa – Sarikolatik Botalekura –.

Azken unean kilometro aldaketa egiteko beharra ikusi genuen bertan gure haurrekin segurtasunez bidea egiteko arriskua ikusten genuelako.

Bi talde horiei trukea egiteko eskaera egin genien eta segituan eman ziguten baiezkoa.

Mila esker bihotz-bihotzez gure haurrei Korrikak suposatzen duen jaiari bete-betean parte hartzen laguntzeagatik. Heziketa egunez egun eta apurrez apur egiten dugunaren jakitun, gure haurrak herritar parte-hartzaileak hezteko bidean eman diguzuen laguntzagatik. Zerbait behar izanez gero badakizue gure etxeko ateak zabalik dituzuela herriko talde guztiek! Mila esker eta ondo izan! ■ **Zaragueta Herri Eskolako guraso elkarte**

Akatsak zuzentzen

Martxoko alean, Intza Unanue eta Marisa Arruabarrenak idatzitako Sokari Tiraka atalean, hainbat akats egin genituen.

Batetik, aipuan, aske jarri ordez asko jarri genuen, konfundituta. Bestetik, lotzen aditzaren ordez lortzen jarri genuen.

Barkamena eskatzen dizuegu egindako hanka sartzeengatik eta akatsengatik.

Beste alde batetik, garabi baten Argazki Mundiala argitaratu genuen. KARKARAK bere egiten du albiste horretan idatzitakoa eta argitu nahi du KARKARA izan zela albistearen egile.

Hortaz, barkamena eskatu nahi dugu albisteak eragozpenak eta arazoak ekarri baditu.

■ ZORIONAK!

Antolakuntzako boluntario guztiei

Boluntarioen lana ezinbestekoa izan da bai Nazioarteko Estropadak, bai Itzulia antolatzeko. Hasieratik izan dute herritarren laguntza, oso garrantzitsua izan den bi ekitaldiak ondo joateko, eta eskertze-koa da hori.

Salmentan, zirkulazioa bideratzen, muntaietan... hainbat esparrutan aritu dira lanean boluntarioak. Laguntzaile sare horrek, gainontzeko elkarte eta instituzioekin batera, amarauna handi bat osatu dute sona handiko bi ekitaldiak primeran joateko.

Nazioarteko Estropada egun osoko festa izan zen, eta arraunak ez ezik, musikak eta aisiak ere izan zuen tokia. Euskal Herriko Itzulia Aian apirilaren 10ean eta 11n izan zen, eta etapak lau ordu iraun arren, bi egunetako festa izan zen.

Ezin hobeto joan ziren, eta ekitaldietan laguntzeagatik boluntarioen lana zoriondu beharrean gaude.

■ JAIOTAKOAK

- Hoda Essalaoui Saalaoui, Orion, apirilaren 18an.
- Kainat Bibi Arfan, Orion, apirilaren 9an.
- Jakes Sarasua Ezkurra, Orion, martxoaren 26an.
- Alain Illarramendi Larrañaga, Orion, martxoaren 20an.

■ EZKONDUTAKOAK

- Mikel Salaberria Salsamendi eta Laura Maria Fernandez Arin, Orion, martxoaren 14an.
- Jagoba Solaberrieta Agirre eta Aiora Uranga Martinez de Alegria, Orion, martxoaren 14an.
- Jokin Zumeta Iruretagoiena eta Ane Garmendia Perez, Orion, martxoaren 14an.

■ HILDAKOAK

- Rafaela Genova Arrizabalaga, 88 urte. Orio, apirilak 16.
- Victor Unanue Atorrasagasti, 84 urte. Orio, apirilak 16.
- Tomas Sanchez Gomez, 85 urte. Orio, apirilak 16.
- Joxemari Beldarrain Idarreta, 98 urte. Aia, martxoak 29.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia. Etxeko produktuek: tripa, odola, txakorra, txorito, krakakak.

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artokaria
finka administratzailea
gestoria
empresak berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 90 itsasadarra@itsasadarra.com
Itzi Ondo 4, beheko, 20110 Orio



Jende asko etorri zen Oriora. Moila eta zubia zalez bete zen . KARKARA



Nazioarteko Estropadetako partaideen aurkezpena . KARKARA



Marino Lejarreta eta Txomin Perurena omendu zituzten . KARKARA

Oporretan edo ospatzen

“Urrutira joan gabe, herrian bertan, bazegoen zer ikusi. Orion, Nazioarteko Estropadak; eta, Aian, Itzulia”

Erramu Igandean hasi eta Larunbat Santuan bukatu. Jesukristoren nekaldia eta piztuera ospatzen da astebetetz; batzuk ospatu, beste batzuk bost jai eguneko –edo bi astetako, Aste Santua eta Pazko Astea– oporraldia gozatu.

Gabonak pasata apirilaren zain egoten dira asko; kristau oporretik, kristau oporrera salto egiteko. Eta, horiek ere pasa dira, bukatu dira modu batera edo bestera igarotako bi asteak. Batera edo bestera ibili denik ere izango da, Benidormera eguzki bila edo Segurara prozesioa ikustera joan direnak. Ziurrenik instagramean emango zutela –askok eta askok– egindako planaren berri.

Baina, urrutira joan gabe, herrian bertan, bazegoen zer ikusi. Orion, apirilaren 4an, Nazioarteko Estropadak; eta, Aian, apirilaren 10ean eta 11n, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia. Bi ekitaldi horiek ere hamaika modutara bizi dituzte.

Batzuk jo eta su antolakuntzan, kirolariak bezain beste izerdi botata. Beste batzuk ikusmiran, festa giroa –antolatu gabea, hau– sortzen: zaletasunaren koloreak harro erakutsi eta oihuka, *tragoa* eskuetan tinko helduta dutela. Eta, nola ahaztu, protagonistak, arraunlariak.

Nazioarteko Estropaden aitzakiarekin astebete Orion pasa zuen Erresuma Batuko taldeak, egunean hirutan entrenatzen. Cambridgetik etorri ordez Cambrilsetik etorri zirela txiokatu zuen herritar batek larunbateko estropada eta gero. Etorritako bidetik joan ziren guztiak, eta banderak ere joan egin ziren, Sevillara eta Herrialde Katalanetara. Itzuliko maillot horia ere Kataluniara joan zen, nahiz eta etxean bezala sentitzen den batek jantzi. Maillota ez, baina Aiako herriak Lejarretari eta Perurenari txapela jantzi zioten.

Ondo iruditzen al zaizu haustekundeetako mahai-ingurua antolatzea?



“Kalte egiten dizunari ez diozu botoa emango”

Bai, erabilgarria dela iruditzen zait. Ni normalean ixilik egoten naiz baina zerbait esan nahi duenarentzat aukera ona da. Nik betidanik alderdi berari eman diot nire botoa, txikitatik etxean ikusi nuelako. Illobak, ordea, horien erabakiek kalte egiten diotela esan dit.

Kalte egiten dizunari ez diozu botoa emango. Horregatik ongi dago bakoitzak zer esaten duen jakitea. Konforme zauden edo ez jakiteko.

Ni konforme nago, inork ez dit kalterik egin orain arte. Nire arazoak konpontzen badituzte, ondo. Horretarako daude politikariak, jendearen arazoak konpontzeko.

Asuncion Larrañaga

Jubilatua



“Mahai-ingurua derrigor egin beharreko zerbait da”

Oso interesgarria iruditzen zait mahai-ingurua egitea, oso garrantzitsua da.

Ondo iruditzen zait horrelakoak antolatzea, derrigor egin beharrekoak iruditzen zait. Ondoren, botoa ondo emateko, aurretik gauzak ongi ezagutu behar dira eta zer iritzi dituzten jakin behar da. Azkenean, botoa emateko gutxi gorabehera jakin egin behar da zer pentsatzen duten, zer egin nahi duen bakoitzak... eta, hori guztia jakiteko oso aproposa da mahai-ingurua.

Botoa ematen laguntzen dit, aukeraketa egiten. Niretzat oso lagungarria da horretarako. Bai ala bai egin behar da mahai-ingurua.

David Uzkudun

Jubilatua



“Askotan gazteek gurasoek diotena jarraitzen dute”

Ondo iruditzen zait antolatzea. Hala ere gure etxean politikari ez zaio kasu askorik egiten.

Bere garaian gehiago, baina orain ez. Gazteek akaso kaso gehiago egiten diote politikari, baina etxean ez diet asko entzuten horretaz hitz egiten.

Askotan gazteek gurasoek esaten dutenari jarraitzen diote. Eta politikan ere antzeko izaten da: etxean zer ikusi hura jarraitu. Gazte horiek politikarien asmoak ezagutzeko eta beren iritzia egiteko ondo dago mahai-ingurua.

Berak joango dira mahai-ingurua ikustera zaharrak baino gehiago. Azken finean, hemengo kontuak gazteek eraman behar dituzte.

Itziar Etxeberria

Jubilatua

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

Maider Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzaia 53 - 20810 - Orrio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODLOGIA ZENTROA

Oriko Kantauriko taldeentzat eredu

1970eko hamarkada Orioko arraunarentzat oso berezia izan zen, gogoan-garria, inondik ere. XX. mendean beste hainbatetan gertatu zen antzera, oriotarrak gainontzeko taldeentzako eredu ziren. Donostiako Kontxan, eta askoz urrutiago ere, Bleden, Munduko txapelduna izan zen Orio.

TESTUA: MANU ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: MANU ETXEBERRIA

Orioko *Club Remo Olímpico*, Arraunketa Elkartea, sortu eta bost urtera, 1970ean, Orion egiten ari ziren iraultza euskal arraunaren ontzi nagusira, trainerura, iritsi zen eta, inondik ere, Kantauri osoko arraunaren aro berria ekarri zuen. Aro modernoaren hasiera zen, oriotarrek goitik-behera aldatu baitzituzten gure kirol honen ordura arteko ohiturak, pentsamendu, sinesmenak eta abar guztiak.

Elkartea sortu zenean, jarritako helburu handia, eta ia sinestezina, arraunketa olinpikoan oriotar estropalariak munduko onenak izatea, 1979an lortu zen. Orioko arraunaren historian urrezko hizkitan idatzita daude Dionisio Redondo, Jabier Puertas, Andoni Elizalde eta Pello Olasagasti lemazainaren izenak. Hura izan zen hamarkada haren bigarren erdiko oriotarren lorpenik handiena. Trainerutan, artean, bizkaitarren – Santurtzi eta Kaiku – bolada bikainari aurre egiten saiatu ziren gure mutilak, baina gehienetan haiek atera ziren garaile. Sestaoarren gidaritzapean, ordea, Jose Luis Kortak Orion ikasitakoak praktikan jarri zituen, eta baita arrakasta lortu ere: 1978, 1980, 1981 eta 1982an Kontxako Bandera irabazi zuten.

1970 Urte magikoa

Traineruetako munduaren itzalean, isilpean, sortua zen 1965an *Club de Remo Olímpico* taldea. Baina, finantziazio zailtasunek bultzatuta, traineru estropadetako sariak eskuratzeko indarra tostan jartzea erabaki zuten, ezinbestean. Baina, ia nahi gabe hartutako erabaki hura medio, inor gutxi

espero zuena gertatu zen, eta Oriorentzat eta euskal arraunarentzat giltzarri suertatu zen.

Data bat arraunaren historian agertzen da hitz larritan idatzia: 1970ko iraila. Lehenengo igandean, Kontxako Bandaren lehen estropadan, Juanito Altxerrik gidatutako traine ruak, artean txapeldun handia zen Lasarte Michelínekoari 45 segundoko aldea atera zion, eta Donostiako badiara bildutako arraunzaleak zur eta lur utzi zituen. Estropada hark lehenago eta ondoren garbia finkatu zuen Kantauriko arraun-ketaren baitan.

Hondarribiatik hasi, eta Galiziako azken muturreraino, aditu guztiek onartu zuten Orio, berriro ere, aitzindari zela. Entrenamenduak, elikadura, arraun teknika eta beste, izan ziren oriotarren ekarpena aro berri honetan, eta beste arraun talde guztiek bide hari jarraitzeari ekin zioten, aho batez.

1975ra arte Estropadak horiz

1973ko Kontxa kenduta, 1970tik 1975ra Orioko traineruaren erakustaldien urteak izan ziren. Salbuespena izan zen 1973ko hura. Patxi Sarasuak, oriotarren gidari zenak, entrenamendu planifikazioaren errakuntza aipatu izan du une hura gogoratzean.

Gainerakoetan, oriotarrak garaiezin izan ziren estropada gehienetan. Kontxako banderan, Estatuko txapelketan, Bilboko *El Corte Inglés* sortu berrian, Nerbioi Sari Nagusian eta beste hainbat estropadetan, Orio jaun eta jabe izan zen, ia hutsik egin gabe.

50 URTE OLATU GAINEAN: 1970-1980



1970ko Oriok iraultza ekarri zuen euskal arraunketara.



79ko Munduko txapelketetan, oriotarrak urrezko domina irabazi zuten.

Bled 1979 Orio munduko podiumean

1960ko hamarkadan hasitako Sarasua, Lizarralde, Manterola, Peña, Agote eta haien ondorengoak, bigarren belaunaldi-koak, izan ziren elkarteko sortzaileek amestutako helburu hura egi bihurtu zutenak. 1970ko hamarkadaren bigarren erdian nazioarteko estropadetan oriotarrak ikustea ohikoa izan zen. 1977an Jose Luis Kortak, pisu absolutuan, laugarren postuan geratu zen scull laukoitzean Amsterdameko Mundialean. Hurrengo urtean, 1978an, Elizalde, Puertasek eta Redondok zilarrezko domina eskuratu zuten mundialean, pisu arinen mailan.

Bidea egina zuten hiru mundialistek, eta, Olasagasti lema-zainarekin batera, 1979an munduko txapelketa irabazi zuten, orduango Jugoslavian. Elitean ibiltzea lortu zuten 1982. urtera arte, Redondok, Elizalde eta Puertasek, bai estatu mailan, bai nazioartean, mundialetan dominak urtero lortu zituzten.

Oriotarrak, Olinpiadetan

Jose Luis Korta gaztea 1972rako Estatuko txapelketetan skiffean nagusi zen, aurkaririk gabe, baina Espainiako kirol agintariak hala erabakita, ez zuten eraman Municheko Joko Olinpikoetara. Gerora, 1976an, gorputzaldi hobezinean zegoela, Kaikun entrenatzaile egoteak Montrealerako bidaiak galarazi zion. Lau urteren ondoren, Mosku 1980ra joateko hordagoa bota zien Sestaoko klubekoei. Errusiara joan eta, scull bikoitzean, 7. postua lortu zuen.

Hamarkada hartan, 1980koan, beste bi gazte oriotar ere jarri ziren Joko Olinpikoen prestaketetan: Ibon Urbietak eta Jose Luis Agirrek Seul 88ra joateko txartela irabazi zuten. Bartzelona 92an, Ibon Urbietak izan zen Orioko ordezkari bakarra; emaitza ez zen ona izan. Urruti geratu zen bi urte lehenago Tasmaniako mundialean lortu zuen zilarrezko domina.

Hauteskundeak eta ingurumena



Arturo Elosegi

Azkenekoak atzo izan zirela ematen du, baina hara non hauteskundeak ditugun berriro. Politikariak leloak astintzen, hedabideak propaganda betean, herritarrak nazkatu antzean.

Hala ere, Eneritz, nago hauteskundeek, agintariak aukeratzeaz gain, beste zerbaiterako ere balio beharko luketeela: gai garrantzitsuak agendan sartzeko eta programen koherentzia bermatzeko behintzat bai. Politikariek maiz harrituta uzten naute: gaur sekulako kezka klima berotzen ari zaigula, eta bihar, berriz, poza autoen salmentak gora egin duelako, bien artean inongo loturarik ez balego bezala. Gaur espantuka uholde-

“Hauteskundeek, agintariak aukeratzeaz gain, beste zerbaiterako ere balio beharko lukete”.

arriskua dela, bihar harro-harro industria poligono berri bat ibai ertzean inauguratzen.

Munduan ditugun ingurumen-arazoen tamaina ikusita, harrituta geratzen naiz zeinen garrantzi eskasa ematen zaien partidu gehienen hauteskunde-programetan.

Superpopulazioa? Klima aldaketa? Itsas-mailaren gorakada? Gure kezka bakarrak immigrazioa edo Ato txako zelaiaren berritzea balira bezala.

Hala ere, txarrena ez da programetan ematen zaien garrantzia. Txarrena da ikustea hauteskundeak irabazi bezain laster ingurumena agendetatik erortzen zaiela, beste edozein gai baino lehenago. Beraz, politikariek aurreko legegintzaldietan egindako lana botoen bidez baloratzeko ere balio beharko lukete hauteskundeek. Hor ere badugu lana, hautestontziak zakarrentzi bilakatu ez ditzaten.



Eneritz Odriozola

Au urte bai, Arturo. Alde ederrean nago gaur egun. Leloric, programarik edo banderarik astintzen ibili gabe. Begira nago, kanpoko harmailetan eserita, jokaldiak behatuz. Horrela zeinen lasai egoten den bat!

Erraza da gogoak eta asmoak botatzea, legegintzaldia hasi aurretiko promesak egitea. Baina, gero gehiengorik ez badago, zaila da horiekin aurrera egitea. Eta zaila da, baita ere, ingurumena gu bezala ulertzen duten pertsonekin topo egitea. Askotan sentsazioa baitut irla bakan bat garela. Lantzen ditugun gaiak askok ulertzen dituzten bezala, elkarreaginik ez balute bezala, aparteko irlak balira bezala: hondartza, Motondo, mugikortasunaren txostena, hondakinak...

“Erraza da gogoak eta asmoak botatzea, legegintzaldia hasi aurretiko promesak egitea”.

Nola egon hondartza duin baten alde eta hondakinen kudeaketa on baten aurka? Era guztietara, aurreko legegintzaldian ikusi dut bilakaera positiboa. Atzean ditut saiakera onak: ‘hirigintza, ingurumena, ogasuna eta pertsonala’ batzorde bakarra izan dugu, esaterako. Baina asmo naturzaleek ez dute gehiengorik izan, tamalez. Irlak izaten jarraitu dute. Horregatik, gu ulertzen gaituzten horiek, gauden irla bakan hau kontinente handiarekin bat egiteko aukera izan dezaten nahi dut. Pangea handi bat sortzeko birtartekoak izan ditzatela datozen lau urteetan. Gure gaiak gizarteko beste guztiekin sinergian aritzeko. Modu horretan, zaborrontziak ez dira gehiago hauteteko gai izango.



Iñigo Exposito

Metro, boulot, dodo



Peru Iparragirre

Bigarren linean etxetik ez dakit nora edo ez dakit nondik etxera nindoala kantari bat sartu da gure bagoian, teklatu bat dakarrela aldean.

Udaberriaren etorrerarekin zuhaitz apurrak koloreak hartzen hasi diren arren kopetilun jarraitzen du jendeak metroaren zain, metroan, lanera bidean. *Metro, boulot, dodo* –metroa, lana, lo– da oraindik hemengo erritmoa, lana dutenentzat behintzat.

Bigarren linean etxetik ez dakit nora edo ez dakit nondik etxera nindoala kantari bat sartu da gure bagoian, teklatu bat dakarrela aldean. Beranduago jakin dut kantari hura Mohamed Lamouri deitzen dela eta kolore urdineko lineako bidaiariak dituela ohiko entzule. Badira urte batzuk Aljeriatik etorri zela eta dagoeneko nahiko ezagun egin da. Esku batekin sorbaldaren kontra jarrita duen teklatura eusten du, beste eskuarekin teklak joaz. Begirada urritua jende artean dabil.

Gizon mozkor bat sartu da berari jarraika, iluntzea da eta bagoiko jendeak loa edo festa edo gaueko turno dauka buruan. Kurba bakoitzean jendearen gainera erortzen da gizon mozkorra, Mohameden ahots urratuari eta melodia hipnotiko-ei noizbehinkako oihu lardaskatuak gehitzen dizkiolarik. Egoera arraroa da: gutxitan bezala, ez da inor telefonoz ari, jendea isilik doa, adi. Zer gertatuko hurrena. Egoera deserrosoa da, Billie Jean kantu mitikoaren bertsio sinple eta hunkigarriaren doinuaren gainean egiten du orain oihu mozkorrak.

Norbaitek zerbait esan nahi lioke, baina beldurtuegi gaude, edo konturatzen gara edozer esanda ere ez ligukeela ulertuko ez eta kasurik egingo. Halako batean Mohamed bagoitik jaitsi da eta atzetik joan zaio mozkorra, zerbait esanez. Bagoian geratu garenok gertatu berri dena sinetsi edo ez gabiltza oraindik, ametsetik esnatu edo amesten jarraitu erabakitzen.

Arazoi huen/klarionez marraturiko zirkulu hertsia dun hiria. idatzi zuen Sarrionandiak Parisetik amodio gutuna poeman, eta egia da. Klarionez marraturiko zirkulu hertsia da hiria eta barnean harrapatzen gaitu gu, zomorro miserableok.

Konpromisoa duten horientzat

Lehen aldiz amaitu da Euskal Herriko Itzulia Aiako herrian. Duela bi aste puntako txirrindulariez gozatzeko aukera izan zen. Ikusgarriak bi egunetan bildu zen jende kopurua eta sortutako giroa. Txirrindulariek aitortu zuten malda gogorretara lehertuta iritsi baziren ere, zaleek burbuila batean sartu eta gora igotzeko indarrak eman zizkietela. Txalotzekoa orokorrean ikusleen harrera, salbuespenak salbuespen.

Atentzioa, ordea, beste zerbaitek eman zidan, bi mila biztanle pasatxo dituen herri batek erakutsi duen antolatze gaitasunak. Lehen egunetan Bilbon eta Zumarragan izandako arazoak ahaztea eragin zuen Aiako herriak. Txirrindulariei oztoporen bat eragiteko arriskutsuenak ziren maldak modu ezin hobean kudeatu zituzten.

Lausengarria badirudi ere, ez naiz Aiako herritarren aldeko kanpaina bat egiten ari. Zorionez, itzulia barrutik jarraitzeko aukera izan dut eta txirrindulari zein antolakuntzakoak behin baino gehiagotan goraiatu dute Aian egin den lana. Haur, gazte zein heldu lanean jo eta ke ikusi genituen. Adinari erreparorik egin gabe eta bakoitzak ahal zuen moduan lagunduz, lauhun mila edota hamar mila biztanle dituzten herrien eta hirien antolatze gaitasunaren eredu bilakatu dira.

Lerro hauek, hortaz, berentzat, atzeko lanean eta konpromiso osoz lanean aritzen diren horientzat!



Nesken laukoa. HECTOR SEJO



Ikusleak zubian. JOXEMARI OLASAGASTI



Mutien zortzikoa. HECTOR SEJO

Nazioartetik Oriora arraun egitera

Estropada azkarrak espero ziren, azkarrak eta estuak. Bizi-bizi joan ziren batzuk, motelago besteak. Azkarrenak Amposta eta Labradores de Sevilla izan ziren, eta Babyauto saria berek eraman zuten. Ezin etxekoen buruetan jantzi hainbeste mimorekin ehundutako eta bordatutako txapela. Ezin garaikurra zaleen aurrean altxa. Fin-fin, saritzeko moduan, aritu ziren antolakuntzakoak. Festa biribila antolatu zuten: erriogan mundu guztiko hamabi talde, moila eta zubia zaleek hartu zuten eta festari doinua jarri zioten musika taldeek. Taula gainean eta herri-tik barrena, bandera ez irabazi arren, Aliron hiru erataria entzuteko aukera izan zen.

“Kirola oso erreminta egokia da sozializaziorako eta integraziorako”

Aurora Makazaga, Blanca Aranguren, Miren Salsamendi eta Alicia Figueroa

Berdin-berdinak elkarteko eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko kideak

Berdintasuna guztientzat aukera berdina edukitzea bezala ulertzen dute. Ulerkera horretan, guztiok kirola egiteko aukera izateko ari dira lanean. Duela hiru urte sortu zen Berdin-berdinak elkarte eta Orioko Karela kiroldegian egiten dute beren kirol jarduna.

TESTUA: O. ARTOLA

ARGAZKIAK: BERDIN-BERDINAK ETA KARKARA

Kosta egiten zaigu *maitezaitut* esatea; eta ezpainak ireki gabe egiten ahalegintzen gara; begirada galdezkorak bidaltzen ditugu galdetu beharrean; eta, ezjakintasunaren mamuak jaten gaituenean, eskua ezkututzen dugu eman ordez.

Beldurraren beldurrez, zuzentasunari men egiten eta errespetuaren kanonak errespetatze aldera, besteen arazoak habi abandonatu izateko soka finean bilintzi-balantza jartzten ditugu. Arazoa gertu bizi dugunean, ordea, mugak erronka bihurtzen dira.

Eta, duela hiru urte, erronka berri baten aurrean jarri ziren Berdin-berdinak taldeko kideak. Pertsonekin egiten dute lan, neutraltasunetik eta aniztasunetik, oztopoak oztopo, kirola egiteko eskubidea berdina baita denontzat.

GKEFren barruan kokatzen da Berdin-berdinak.

Alicia Figueroa: 2003an jaio zen federazioa. Kirol zerbitzu-sorta zabala eskaintzen dugu, betiere ahanzturan utzi gabe duela hamabi urte finkatu genituen baloreak. Oso presente daukagu pertsonengatik eta pertsonentzat lan egiten dugula eta guztiok aukera berdina eduki behar dituztela.

Blanca Aranguren: Berdin-berdinak, kirola egiteko herritik atera behar zuten gazteen ekimenez sortu zen. Herrian kirol instalakuntza onak eduki arren, laguntzarik ez zutenek, kanpora joan behar izaten zuten. Hortaz, behar batetik jaio zen elkarte.

Zorrotza dirudi, baina horrela da, egin zutena eskubideen defentsa besterik ez zen izan.

Kirola egiteko eskubideaz ari zarete.

Figueroa: Guztiok dugu eskubidea kirola praktikatzeko. Horretan ari gara buru-belarri, bakoitzaren behararen arabera, kirola egiteko aukera izan dezangun egiten dugu lan.

Aranguren: Asmo horrekin sortu zen taldea. Eta, gainera, ez zen eraiki gaitasun ezberdina zutenentzat; guztientzat irekia da Berdin-berdinak. Eta, balio erantsi bat gehiago ere badu: kide diren pertsonen onartuak sentitu behar dute, egiten dutena –eta ez egin ezin dutena– baloratzen den talde bateko partaide.

Figueroa: Haur autonomoagoak eta menpekoagoak daude eta bakoitzaren beharrak ezberdinak dira. Behar horietara egokitzen gara gu.



Hiru urte igaro dira hasi zinetenetik.

Aranguren: Gaur egun denetik daukagu taldean: mutilak, neskak, gazteak, helduak, urritasuna duten eta ez duten pertsonak... denetik dago, guztiz irekiak gaude, baina bi baldintza bai ala bai errespetatu behar dira:

Kuota guztientzat berdina izango da, urritasunak ezin du gastu ekonomiko gehigarria izan.

Mundu guztia onartzen dugu. Ez diegu adinari, sexuari, gaitasunari, ideia politikoei eta antzerakoei begiratzen. Guztiz neutroa da.

Zuen eskaintza, ordea, anitza al da?

Aranguren: Hiru urteko bidea egin dugu eta egun lehiaketan parte hartzen duten igerilariak daude taldean, baita lehiatzen ez direnak ere; orain arte pilotan ere ibiltzen ziren Orioko frontoian, baina orain Amasara joaten dira; eta, areto futboleko saioa egiten dugu astean behin.

Aurora Makazaga: Talde ezberdinetan banatzen ditugu, gaitasunaren eta beharren arabera. Astean hirutan igeriketa egiten dugu eta lehorrean pilates ere egiten dugu.

Aranguren: Oraingo eskatu dituzten beharrei erantzuna eman diegu, baina, jakin badakigu behar gehiago daudela. Hortaz, laguntza behar duenak jo diezagula atea momentua ikusten duenean.

Kirola lagungarria dela uste duzue, beraz.

Figuroa: Kirola oso erreminta egokia da guztien parte hartzea sustatzeko, gizartearen barruan egoteko; baina, maiz, gizarte-bazterketa dakar.

“Berdin-berdinakeko kuota guztientzat berdina izango da, urritasunak ezin du gastu ekonomiko gehigarria izan”



Lehian zentratzeak dakar bazterketa hori?

Aranguren: Lehiaren esparruan sartu eta ez dira gainontzeko baloreez ohartzen.

Berdin-berdinaken beste balore batzuk lantzen dira, beraz.

Aranguren: Gure taldera gerturatzen denak hori du irabazteko, balioetan aberastu egingo dela.

Makazaga: Politena balio horiek egunerokoan ikustea da. Elkarren artean laguntzen dira. Eta, gainera, herrian ere ikusten direnez, harremana egiten dute.

Aranguren: Magikoa da hori. Desgaitasun guztiz ezberdina dutenak elkarrengana gerturatzen direla ikusteak guztiz merezi du.

Sozializatzekeo tresna egokia da kirola zuzen erabiliz gero?

Salsamendi: Onuragarria da, maila askotan, ez bakarrik harremanak izateko arazoak dituztenentzat.

Figuroa: Badira kasuak kaletik burumakur ibiltzen ziren jendearenak, kiroldegira joateko kapaz ez zirenenak. Gainera, kiroldegiko beirateak ez du batere laguntzen. Baina, pausoak pixkanaka eta mimoz emanda, orain, ziurrago sentitzen dira. Autoestimua asko lantzen da.

Salsamendi: Autoestimua gain, buruaren eta gorputzaren lanketa, autonomia pertsonala... hainbat helburu lortzen dira.

Familiarentzat ere lagungarria da, ezta?

Aranguren: Semea edo alaba kirola egiten hasi eta beren burua aurkitu duten gurasoak ere baditugu. Izan ere, badirudi gizarte honetan estandar batzuen barruan bizitzeko jaiok garelara. Ingurukoek dutena espero duzu, eta, horrela ez denean, guztia hankaz-gora jartzen da.

Kasu horietan, ez duzu denborarik kirola egiteko ere. Eta, haurra Berdin-berdinaken dabilenetik, kirola egiteko tartea ateratzen duzu. Bizi kalitatea hobetu egiten da, nabarmen; lehen egunean kopetilun etortzen ziren gurasoak orain bizipozez datozela ikusten duzu.

Figuroa: Informatzeko ere balio die hona etortzeak.

Desgaitasunak ez dituztenentzat ere aberasgarria da, ezta?

Salsamendi: Niretzat etengabeko ikaskuntza ari da izaten.

Figuroa: Balore ugari barneratzen dituzte, pertsona bezala aberastu eta hazi egiten zaituztenak.

Aranguren: Inork ez daukagu gaitasuna guztia ongi egiteko. Bihar edo etzi zerbait gertatu eta gu egon gaitezke egoera horretan. Hortaz, mimatu egin behar dugu Berdin-berdinak.

Herriarrek mimatzeko garrantzitsua da herriaren erdian kokatzea erabiltzen dituzuen instalakuntzak?

Aranguren: Herriaren bihotzean dago Karela, erdi-erdian. Oso garrantzitsua da hori, ezagutzera ematen gaituelako, ikusi egiten gaituztelako. Horrek balio handia dauka.

Zuek zuen lana mimoz egiten duzue behintzat.

Aranguren: Mimoz eta pasioz. Funtzionatzen duela ikusten dugu, emaitza onak lortzen ari garelara.

Makazaga: Gradu amaierako lana egiten ari naiz, eta bertan frogatzen da onurak ekartzen dituela egiten dugun lanak. Oso motibagarria da hori.

Eta erabiltzaileek ere onuragarria zaiela esaten dizute?

Aranguren: Neurtu dezakeguna beren ilusioa da. Eta hor, argi ikusten da, gero eta ilusio handiagoarekin etortzen dira. Hori sintoma argia da.

Figuroa: Hautematen dugun hori datuen bitartez adieraztea da gure ondorengo eginkizunetako bat.

Kirolaz gain, bestelako ekintzak ere egiten al dituzue?

Aranguren: Txokolate tailerra egin genuen Errenterian, arraunean ibili gara, zaldian, Donostiako gabarroira joan gara, Akuariumean lo egin dugu marrazoen azpian...

Figuroa: Londresera ere bidaiatu dugu. Taldeko bik horrelako esperientzia bat bizi nahi zuten eta guk lagundu egin genien. Olinpiadak izan zirenen aitzakiarekin, hara joan eta kirol instalakuntzak ezagutu zituzten.

Azkenik, zuekin kirola egin nahi duenak nora jo behar du?

Salsamendi: berdinberdinak@gmail.com helbidean edo facebooken Berdin-Berdinak profilean aurkituko gaituzte.



Hamaika zapore, ehunka pertsona

Txakolina, txakolina... Getariko erreginak, asteburu batez bederen, Aia izan du bizitoki. Txakolin eguna izan zen apirilaren 15ean, igandearekin, eta kopa behin eta berriz mahasti ezberdinetako uztarekin bete zuten bertaratuek.

Edan ez ezik, jan ere egin zuten. Tripa bapo betetzeko aukera izan zen, txahal pintxoak ere ematen baitzituzten euro baten truke. Eusko Label markaren zigilupean, momentuan bertan erretako txahalek festari aroma ematez gain, askoren sabeleko korrokadak isiltzeko ere balio izan zuten. Festa giro ederrean joan zen Aian antolatutako Getariko Txakolin Eguna.

KARKARA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.



INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4

Tel. 943 894 024

Fax. 943 130 144

20809 AIA - ORIO



SU KIA
 (SOLERA - JARDITZA)

Onaigatzen gaituzue... lortu KOPRA eta TOPAZI!

- OILASKO EFFREAK ERAMATEKO
- EOLINEKO MEMBIA
- EDUNKARIAK
- OZIA

943 83 10 88
 HAZKANDU 31, 20080

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.

Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 83 25 93 / 83 08 80 • Murgiorra: 656 78 30 01 • 656 78 29 99

LUXARBE
(izalzaritza)

Igeltzeritza brokorra, denetarik egiten dugu

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

ASADOR XIXARJO
 Txakur Galerna, Edun. 2
 20194, 943 83 10 88

AIRDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

azkue  **karrozeria**

Ubegun industrialdea, 7
 20809 Aia-Orio
 Tf/fax: 943 83 51 86
 carroceriasazkue@hotmail.com

UTZIAR
kirolak

Tel: 943 83 31 03

Joana Murgiondo
Asegurari-argentea

ASEGURUA

Abeslari, 4- 2. esk.
 Tfnoa: 943 13 46 07

KINTO
 AFARIETAKO MENU BEREZIAK

JATETXEA **Galerna**

Antillako Hondartza 5- 20810- Orio
 Telf.: 943 89 04 16

He azaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

Kinkilindenda - Ume arropa

argine

www.lesonet.com/argine
 Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEI TXARTELAREKIN

Katu Horia

ESTROPALARI, 10
 20810 ORIO

Larriak: 943 89 11 66 99
 943 89 11 25

Lizaso
 dekorazioa

Tf: 943 83 07 84
 Faxe: 943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

KNOBGT TXIBI S.L
 KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



KARKARA

“Ezin badut idaztetik bizi, besteei irakurgaiak ematetik bizi nahi dut”

Iñaki Goitia

Orioko Udal liburutegiko arduraduna

Musika eta literatura; bietatik edaten du Iñaki Goitiak -Oñati, 1981-. Bata afizioa da beretzat, bestea ofizioa; eta, biak, pasio. Biek dute presentzia eta protagonismoa Goitiaren bizitzan.

OLATZARTOLA

Liburuzaina da Orioko liburutegian eta bateria-jotzailea Malenkonia taldean. 2002an ekin zioten bidean aurrera jarraitzen dute, hirugarren diskoa grabatzen dabilta.

Malenkoniak tristura zehaztugabea esan nahi du.

Taldearen izena taldearen izanarekin bat dator, batez ere hasiera garaian. Gerora rockera jo dugu eta malenkonia pixka bat galdu dugu. Malenkonia da taldea, baina taldekideak ez gara malenkoniatsuak.

Homo homini lupus da azken diskoa. Gizakia otsoa al da gizakiarentzat?

Galdera hori egin genion gure buruari eta galdera hori egin nahi diogu entzuleari, hausnarketarako bide eman. Sarritan, historian zehar, filosofo askok beren ahotan erabili duten esaldia da. Kritika sozial-antropologikoa egin nahi izan dugu, gizakian zentratuta, ikuspegi ezkorrekin.

Gizakiaren erorialdia bizi al dugu, bada?

Gizakia bere gizatasuna galdu du edo ez du inoiz eduki? Gizakiak, gainontzeko izakiak suntsitzeaz gain, bere buruari ere kalte handia egin dio. Gu gara gure etsairik handienak.

Idatzi gabe ezin sua eman, diozue Fahrenheit 451 kantuan.

Zerri eman nahi diozu su zuen letrekin?

Su eman nahi diogu gizartearen kontzientziari. Ezkorrak izan arren, eta ez uste arren gizartea aldatu daitekeela, aldatetarako gogoia piztu nahi dugu.

Dena den, Fahrenheit 451 kantuan Stalinen garaiko poeta batek gauero emazteari idatzi gabe zuen poesia errezipitatzen ziola kontatzen du. Jendaurrean ozen esan zuen behin eta salatu egin zutenez, Stalinen gizonak beren etxera joan eta ezin izan zuten poema aurkitu, beren hitzetan egon arren, ez zuen inon idatzi. Horri egiten dio erreferentzia kantuan.

Letraz jositako inguruan ematen duzue egunerokoa. Biak, musika eta literatura, al dituzue pasio?

Literatura nire ogibidea izateaz gain, pasioa ere bada. Ezin badut idaztetik bizi, besteei irakurtzekoa ematetik bizi nahi dut. Liburuez inguratuta egotea perfektua da niretzat, asko gustatzen zait.

Abestien letrak ere idazten dituzue.

Idazteko pasioa dut, bai; baina irakurtzekoa ere, irakurtzen ez duenak gutxi idatziko baitu. Eskutik emanda doaz biak.

Akrofia da diskoaren bosgarren kantua. Oholtzan zaude-tenean bertigoa sentitzen al duzue?

Bertigo edo presio hori sentitzea beharrezkoa da, garrantzia duela adierazten baitu. Akrofia hori sentitzen ez baduzu, taula gainetik jaisteko garaia iritsi zaizula uste dut.

Akrofia ez, baina akrobazia asko egin behar al dira musika eta lana uztartzeko?

Lehen samurragoa zen, guztiok ikasten genuenean. Orain, lanean gabiltzala-eta, zailagoa egiten zaigu.



Aldapak %20tik gorakoak

Aiako horma. Aldapa motz bezain gogorra, luze egiten dena. Helmugara bidean azkena. Jende gehien biltzen duena. Txirrindulari batzuek maite eta besteek gorroto dutena. Igotzaileentzat ederrena. Zaleentzat ikusgarriena. Espektakulu handia eman dute txirrindulariek Aiako horman.



Aiar askok etxeko balkoi eta leihoetatik ikusi zuten Itzulia. KARKARA



Boluntario asko aritu ziren lanean. KARKARA



Putiro Rodriguezek jantzi zuen Itzuliko maillot horia . KARKARA



Aiako horma igotzen asko sufritu zuten txirrindulariek. KARKARA

Euskaldunak Aiako podiumean

Eibarren hasi eta Aian amaitu zen etapa Mikel Landak irabazi zuen. Pot eginda, arnasa hari mutur hauskorra zuela iritsi zen metara, pozarren isuritako negar maltotan. Biharamunean beste euskaldun bat igo zen podiumera, Jon Izagirre. Hirugarren amaitu zuen Itzulia.



Sei Gipuzkoako bandera

Bertutean erroak eginik dagoen kluba. Ondo errotutakoa. Harrobi sendoa duena, fruituak ematen ari den sorburua. Herriko batel gazteenek haizea poparean dute, puntaren puntan baitaude, onen-an. Onenetik onena eman dute, zortzi finaletako sei irabazita. Gipuzkoako Txapelketan. Lortutako bandera guztiak astindu zituzten herriko balkoian.



“Makina ia perfektuak egiten ari gara, baina horrek ez gaitu ia perfektu bihurtzen. Inprebisibleak izaten segitzen dugu. Izugarrikeria handienak egiteko gai. Gure izaeran dago. Giza kondizioan.”

Anjel Lertxundi, idazlea, Berria, apirilaren 13an.

“Mugikorrean ondo ibiltzen den jendeak azkarrago ikasten du tostako arraunketa; alderantziz, motelagoa da egokitzen. Bateragarriak dira biak.”

Miguel Angel Millares, aulki mugikorreko entrenatzailea, San Miguel Liga, apirilaren 1ean.

Zaragueta Herri Eskola Oriko

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

KOLON TXIKI
infantaila juseketa

Herriko Enparatza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDURAK ZORBITZEA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@arrailagileak.com
2010 ORIO

- ATAK INKIZIARI DITUOK
- SARRAILA-IZKIDORO ALDARAK
- ATAK IXTEKO MALGURRI ALDARAK
- KOMUNITATEBETZAKO ZORBITZEA

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Apirileko sarrituak

Juan Cruz Intxauspe San Sebastian
Rosana Argazkiak
Jon Fernandez Loiola
Noah's Secret

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



Zingira eskola, haurren hazkuntza autonomoa helburu

Hezkuntza eredu berri bat garatzeko gogoz, familia talde bat elkartu zen duela hiru urte **Zingiran. Kimabe elkartearen sortu zuten** heziketari buruz hausnartzen dute, haurren ikaskuntza garatzeko testuinguru egoki baten bila.



TESTUA: M. GARCIA
ARGAZKIAK: KIMABE

Naturaren erdian dago Zingira, Aiako Olaskoegia auzoan. Pagoetako parke naturala oso gertu dauka eta Makatzaga erreka pasatzen da ondotik. Udan zehar kanpina den gunean lasaitasuna da nagusi; erreka eta animalien hotsek bakarrik hausten dute isiltasuna. Eta, astelehenetik ostiralera, umeen jolas-hotsek.

Zingiran du kokalekua Kimabek, hazkuntza autonomoa garatzeko elkarteak. Hamar familia bildu dira hezkuntza eredu berri bat garatzeko, balio demokratikoetan eta bizikidetzarako askatasun eta betebeharren printzipioetan oinarritutako hezkuntza modeloa. Haurren behar kognitibo, sozial eta emozionalak asetzeari datza proiektua, hezkuntza sistema ofizialak erabiltzen duenaren bestelako metodologia bat erabilia.

Hezkuntzarekiko kezka proiektu bihurtu dituzte

Haurrak oso txikiak zirela hasi ziren elkartzen gerora Kimabe elkarte izango zeneko kideak. Haurren hazkuntzan ziztuzten dudak elkarbanatzeko elkartzen ziren, eta hezkuntzaren inguruan hausnartzeko. Horrela, hezkuntza eredu alternatiboak ezagutzen joan ziren, informazioa jasotzen, eta beren seme-alabentzako egokiena izan zitekeen ereduari buruz hausnartzen.

Hainbat faktore elkartzeari esker, aspaldian airean zuten proiektu hura martxan jartzeko momentua iritsi zen duela hiru urte. Espazio egokia aurkitu zuten eta taldea indartsu zegoen; ibilbide berriari ekiteko garaia iritsi zen.

Behin kokalekua lortuta, berehala hasi ziren kanpina egokitzen eta, eskulana eta berrerabilpena oinarri hartuta, lan horretan haurren parte hartzea sustatzen.

Hiru urte pasa dira geroztik eta hamar familia biltzen dira orain Zingiran: hamalau haur eta hogeitau baina gehiago. Familia handi bat osatzen dute guztien artean.



“Haurrak beren ikaskuntzan partaide aktibo izatea oso garrantzitsua da Kimabe proiektuan”.

“Egiten duen lana egiten duela, helduaren maitasuna eta errespetua dituela sentitu behar du haurrak”.

Eredu alternatibobat

Jean Piaget psikologo suitzarrak zioen haurrak berezkoa duela ikasteko nahia eta grina. Hori da Zingiran funtsean errespetatzen duten baldintza. Hortik abiatuta, ideia horren inguruan eraikitzen dute espazio eta material guztia, haur bakoitzak nahi duenean, eta prest dagoenean, berak ikas dezan.

Baldintza horietan haurrak azkarrago ikasten dutela zioen Piagetek. *Helduoi ere gertatzen zaigu hori –dio elkarteko kide batek–: zerbait gogoz egiten denean askoz errazago egiten dugu, inposatutakoa edo egin beharrekoa denean baino.*

Pertsona guztiak desberdinak direnez, bakoitzak desberdin ikasten duela kontuan izanda sortu da proiektua. Haur bakoitzaren bidea zaintzen dute. Zenbakiak ikasteko garaian, adibidez, batek dendatara jolastea gustatzen zaiolako ikas ditzake –txanponak kontatu, prezioak...– eta beste batek dinosauro zalea delako eta bakoitzaren pisua, luzera eta ezaugarriak erakusten dituen kromoak dituelako.

Piaget eta Maslowen esanak, eta beste hezkuntza proiektuen ibilbidea ere du hartzen badituzte ere, proiektu propioa sortzen ari da Kimabe. *Ez dugu metodologia zehatz bat jarraitzen –diote–. Eredu bakoitzetik interesatzen zaiguna edo gure ustez haurraren beharrak ondoen asetuko dituzten gauzak hartzen ditugu eta martxan jartzen ditugu.*

Badira hainbat funtsezko kontzeptu Kimaberen hezkuntza proiektua ulertzeko. Batetik, haurrak hezkuntza komunitateko kide aktibo dira. Inguruarekin elkarreaginean bere gaitasunak garatu eta esperientzien bidez ikasten joango da. Bestetik, jolas espontaneo eta librea da ingurunea ezagutu eta ezagutza horiek barneratzeko gakoa; horrek, ikasketa prozesua plazera bihurtuko baitu. Hirugarrenik, ezinbestekoa da espazioa haurraren beharretara egokitua egotea. Eta, azkenik, prozesu guzti horretan helduek izango duten jarraera da hori guztiari forma emango diona.

Helduak, bidelagun

Haurrak beren ikaskuntzan partaide aktibo izatea oso garrantzitsua da Kimabe proiektuan; horregatik, ikasketa prozesu horretan helduek izan behar duten jarreraz hausnartzen dute. Heldua izango da haurraren ikasketa prozesuan bidelaguna, prozesu horren protagonista haurra bera izango dela ziurtatuko duen pertsona.

Hurrek denbora guztian izango dute laguntza emango dien bidelagun bat ondoan, baina asko zainduko dute beren jarrera, haurrak presiorik gabe –helduena edo beste haurrena– bere motibazioaren indarrez egin nahi duena egiteko askatasuna sentitu dezan. Garrantzitsua da helduaren arreta izatea, behar duenean ideiak eta zalantzak entzuteko, baina baita bere aurkikuntza propioak egiten uztea ere, inongo oztoporik jarri gabe.

Egiten duten lan pertsonala egiten dutela, helduaren maitasuna eta errespetua dituela, eta ez beste zerbait espero zuela sentitzea ezinbestekoa da. Horrez gain, bidelagunak laguntza praktikoa emango dio haurrari, eta zerbait gaizki ateratzen zaionean, nola sentitzen den ulertu eta bere frustrazioa entzungo du.



Egunerokotasuna guztien artean adosten

9:00etatik 15:00etara joaten dira Zingirara. Hamalau umeak eta hiru bidelagun egoten dira egunerokotasunean –urtean zehar kopurua aldatzen joaten da beharren arabera–.

Bi adin tartetan banatzen da taldea: 6 urtetik beherakoak eta 7 urtetik gorakoak. Txikienekin jolas espontaneoan aritzen dira batez ere: jolas sinbolikoa, marrazketa, psikomotritzitatea, esperimentazio bidezko ezagutza...

Helduenekin dinamika bestelakoa da. Interes pertsonalenzako tartea hartzen dute lehen orduan. Garrantzia berezia du tarte horrek, motibazioa dagoenean haurra ikasteko irekiagoa dagoela jakinda ere, askotan haurrek ez dutelako beren lan pertsonala egiteko tarterik hartzen lagunekin egoteko gogo gailentzen zaienean.

Interes pertsonaleko tartearen ondoren, egunean zehar eduki akademikoak lantzeko tailerrak egiten dituzte. Lan pertsonalaren tartean banakako lana sustatzen den bezala, taldeko lana egitea ere ezinbestekoa da Kimaberentzat. Horregatik, haurrek eta bidelagunek elkarrekin adostutako edukiak lantzen dituzte tailer horietan: matematika, zientzia, planoak, historia, kirola, hizkuntza...

Hezkuntza sortzaileko tailerrak ere egiten dituzte espresioa lantzeko. Pintura, buztina, mugimendua eta eraikuntza lantzen dituzte, besteak beste. Elkarren arteko konparaketarik eta bidelagunen aldetik inongo presiorik ezegotea bereziki zaintzen dute tailer horietan, kontziente baitira askotan helduen komentarioek haurren jolasa zapuztu dezaketela, sormenak eta adierazpenak *egiteko modu* jakin bat behar balu bezala.

Asteazkenetan txangoak egiten dituzte, eguneroko dinamikatik atera eta beste testuinguruak ezagutzeko. Naturara

ZENBAKIA

10

Familia. 14 haur eta 20 heldu baino gehiago. Zumaiatik hasita Donostiaraino. Familia eredu desberdinek osatzen dute Kimabe. Badira seme-alabarik ez duten baina hezkuntzaz kezkatzen diren helduak ere. Familia handi bakarra osatzen dute guztiek, elkartzunean eta askatasunean eraikitakoa.



joaten dira batzuetan; zuhaitzetan txabolak egitera edo erreka ezagutzera. Ondoko baserrikoekin harremana dute. Museoak, helduen lanbideak eta inguruko herriak ezagutzera joaten dira.

Hori guztia ostiralero haurrek eta bidelagunek egiten duten bileran erabakitzen dute. Haurrek beren nahi eta beharrak adierazteko eta elkar entzuteko gunea da; izan ditzaken konfliktuak kudeatzeko eta beren sentimenduak adierazteko. Horrez gain, haurrek ere elkarrearen funtzionamenduan parte hartzen dute –elkarbizitzako arauak denen artean adosten dira– eta hurrengo asteko lanak planifikatzen dituzte –tailerrak, txangoak eta abar–.

Zailtasunak eta pozak

Zailtasunez hitz egitean dedikazioa aipatu dute Kimabeko kideek. *Hemen dena guk egiten dugu: kozinatu, garbitu, antolatatu, eraiki, bidelagun izan... horrek zenbait momentutan esfortzu handia eskatzen du.*

Elkarbizitzak ere bere alde onak eta txarrak dituela diote; izan ere, Zingiran harremanak oso zuzenak dira. *Batzuetan desadostasunak eta konfliktuak egon daitezke, eta hori lantzea aberatsa bada ere, ez da beti erraza.* Alde horretatik haurrengandik asko ikas daitekeela aipatu dute.

Zailtasunak zailtasun, haurren garapena ikustea eta beren bidea egiten doazela ohartzea magikoa dela diote. *Batzuetan ez dakizu nola, non edo noiz ikasi duen zerbait, baina zu gainean egon beharrik gabe barneratzen dituzte gauzak.*

Horrelako proiektu bat aurrera ateratzea da beste onura bat: *gure bidea egitea eta ideekin koherente izatea, nahiz eta zailtasunez betetako bidea izan, satisfazio pertsonal handia da berentzat.*

BESTE HEZKUNTZA PROIEKTUEKIN HARREMANETAN

Nork bere bidea egiteko besteena ezagutzea lagungarri izan ohi da. Horregatik, ingurunetik edateaz gain –herria, eskualdea, probintzia...–, beste hezkuntza proiektuetatik ere elikatzen da Kimabe.

Adibide ugari daude mundu mailan –*Sumerhill, Reggio Emilia, Pestalozzi, Bambini Montessori, Loczy-Pikler* instituzioak, *Freineta* eskolak...–, eta baita Euskal Herrian bertan ere: badira dozena bat urte baino gehiagoko esperientzia duten hezkuntza proiektuak gure inguruan. Tximeleta Iruñian, Bizitoki Behaizen, Goiztiri, Geroa, Ur tanta, Kortiriñe, Umerri, Bizilore, Basotxo, Plisti Plasta, Aboragune, Mara-Mara...

Espainia mailan, Hezkuntza Askatasunaren aldeko Elkarrekin –ALE– elkarretaratzeak antolatzen ditu urtero. Beren esperientzia beste familiekin elkarbanatzen dute Kimabekoek bertan. Familia asko elkartzen dira han eta beren kezkek, arazoak, konponbideak, hausnarketak eta abar partekatzen dituzte. *Haurrentzat ere oso ondo dago topaketa hau –diote–, elkar ezagutzeko aukera dute eta berak ere esperientziak trukatzeko dituzte.*

Beste proiektu eta elkarrekin harremana izateak beren proiektua garatzen eta definitzen laguntzeko balio duela diote. Oinarrizko ideian eta jakin-minean bat egiten dute proiektu horiek guztiek. Bakoitzak izandako esperientziak ezagutzea aberasgarria da Kimaberentzat.

Irudia



Garbiñe Manterola

Nazter guztietan igartzen dut. Urduritasuna. Pentsan, irratian, txioetan. Baita familian, lagunartean eta herrian ere. Kanpaina hemen da, eta ez antxoarena bakarrik.

2007ko udal hauteskundeetan ez nintzen Orion. Lan kontuak medio bi hilabeteko egonaldi batean nintzen, Alemanian. Maiatzaren 27 hartan goiz utzi nituen lagunak kalean, ezin sinetsirik nire etxeratzearen arrazoia. Alemaniarrentzat buruan ez kabitzekoa baizen: 5.000 biztanleko herri bateko boto kontaketak udaberriko terraza giroko garagardoa zapuztu? Nola bada!

Hemen da, berriz ere, apustuak egiteko garaia, baina ez naiz analisi politikoetan abila. Eta berriz ere maiatzaren azkenetan goiz etxeratuko naiz, nerbioso.

Apustuak egin ordez imajinazioari freno kentzea pentsatu dut, ariketa osasungarriagoa zait eta. Izan ere, imajinatzea librea eta merkea dela erakutsi dit Spock doktoreak asteotan, 2030erako euskal pasaporte poltsikoan izango dudala esan duenean.

Hasteko, herrigunea, autorik gabea izango da. Lasaia, mo-

Imajinatzea libre eta merkea dela erakutsi dit Spock doktoreak asteotan, 2030erako euskal pasaporte poltsikoan izango dudala esan duenean.

tor soinurik gabea. Haurrak, adinekoak, ezinduak, seguru biziko dutena. Hortxe estampa: elizako aldapatik, bizikletan arrapaladan, ume koadrila; eta plazako aitona-amonak haiei begira elkarri kontuak esan bitartean. Denak elkarrekin, gozatzen.

Besteko bidegorri egokia izango dugu. Di-da batean herriko mutur batetik bestera era iraunkor eta seguruan joateko. Eta autobusak eta trenak bost minuturo izango ditugu, bai Zarautz aldera baita Donostia aldera ere. Beno, eta Aiaraino ere bai, libre da eta eskatzea.

Zubiak teilatu garden bat izango du inork aldaka hautsi ez dezan haize handiko egunetan.

Hondartzako malekoia, etxeak, barra berria eta halakoak ez dira existituko. Gipuzkoako duna sail garatuena izango dugu eta turista andana etorriko da hura ezagutzera. Baina hori ez da izango platofuertea. Ordurako urak Motondo hartua izango du. Eta ez urak bakarrik, baita hegazti espezie askok, angulek, igelek... Oriako Itsasadarra Euskal Herriko bigarren biosfera erreserba izendapena eskuratzear izango da.

Gutxienez beste bi Moila bazterretik behar ditut irudi osoa osatzeko. Hurrengoan bigarren kapitulua.





Meltxor Artetxe

Lasarte-Oriako oriotarrak Hendaiatik

**Sinestezina da 13 kilometroko tartean
nola aldatu daitekeen testuinguru
soziolinguistikoa.**

ederatzi urte nituen Oriotik kanpora bizitzera joan nintzenean. Aita Lasarteko Michelin lan-tegian aritzen zen eta neguko izotzen ondorioz izandako moto-istripu gogor xamar baten ondoren beldurra nagusitu zen etxean; beraz, segurtasunaren bila edo, bertara joan ginen. Bizitzako mugarri nagusietako bat niretzat, zalantzarik gabe.

Agur herriari, agur arranpla eta hondartzari, agur baporei, agur elizako zimitayo-jolastoki bitxiari, agur Inazio Sarasuaren traineruari –nolako miresmena gizon hari! Uste dut Lasarten jabetu nintzela, halako batean, Santiyo eguneko meza amaieran kantatzen zen *Inazio, gure patroï handia...* kantu hura beste Inazio baten ohorez kantatzen zela–.

Agur lagunei ere. Nolako negarrak eta promesak –*ez zaituztegu ahaztuko, ostegunero etorriko gara zuekin, jolastera aginduz!*–ostegun arratsaldetan jai izaten genuen garai hartan eskolan–. Baina politiko kaxkarren antzera, ez genuen agindutakoa bete, jakina.

Eta batez ere, ia-ia agur euskarari! Sinestezina da 13 kilometroko tartean nola aldatu daitekeen testuinguru soziolinguistikoa. Izan ere, ia euskara hutsean bizi izatetik –eskola-ko komunikazio formaleko momentuak izan ezik–, euskara etxean baizik ez erabiltzera igaro nintzen bat batean. Kanean anaiok elkarrekin topo egin eta euskaraz hizketan hastera-koan, hainbat eta hainbat harritu egiten ziren, *pero, habláis vasco?* galdetuz; pentsa...

Geroztik, Lasarte-Oria pixkanaka baina sendo euskaldun-tzen zihoan neurrian, behin baino gehiagotan bururatzen zitzaidan galdera: Orio hazten doan neurrian euskararen erabilpena murrizten, joango ote da? Benetan lastima litzeteke horixe! Baina ez, Oriorekiko galdutako harremana berreskuratzen, joan naizen neurrian, euskararen gotorleku, *arnas-gune* izaten jarraitzen duela ikusten dugu; benetan txalogarria iruditzen zait eta oriotarra izatearen harrotasuna sentiarazten dit. Jarrai dezatela Orioko euskal birikek topera funtzionatzen eta itsas-bazterretik arnasketa horren eragina hel dadila Hendaiaraino, aire euskaldunaren premia latzean baikaude hemen!





EGIGUREN
www.egiguren.com

E Z K O N T Z A **E R R E P O R T A T A**

PREZIO EGOKITUAK

Banku Gudari 3 beheko ORIO
943 83 04 85 - 607 54 37 63

EGIGUREN ARGAZKI ESTUDIOA



GARMENDIA
BIBELIARIA - AHOKUZARITZA - KESERUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 486 - Fax: 943 132 941

HAIZE & BERRI
Salerosa - jateak - barritagea

Plater konfitatuek,
kekazak,
hamburgazak,
rasiok,
eguzko menuak...

eta etxeko erromateko zerbitzua!

Kalea 10, 20810 Orio
Tel: 943 13 25 32

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46



943 831048 610 697 668

www.fotoramiro.com

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu



943 83 09 84 alta lertxundi, 36
ORIO

MENDIZABAL
ARROZTEGIA
*Narrinako arrisarrak
eta egurrenak*

943 831 175 Alferri bidea
645 708 491 Bati Aial etxea
mendizabalgaztegi.net 20810 Aia-Orio



kutixi
kafetegia
GOSARI GONDAK

Antzaga 1, 20810 Orio
Tel: 943 13 12 11

URAITZ
Lurrindegia
panitz-erregaztiak

Duduri, 3 - Tel: 943 83 10 97



ROSANA ARRUTI

2015
Jaunartzeak

Tel: 943 83 58 45
fotorosanaarruti@gmail.com



ARISTERRAZU
jateketa

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: Arrain zopa
Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32



intxaur egurrez egindako tramankulua -Matraka- eliza baino zaharragoa dela dio Martin Peronak. KARKARA

Matraka

Oroimenaren kutxa

Komunikazioaren teknologiak aurrerapauso izugarriak eman ditu azken urteotan, Internet daukagunetik. Herriko jende zaharrak entzuten dituen oraingo gazteek erabiltzen dituzten baliabideen izenak, zer diren ere ez dakite: wasap, aipod, twitter... XXI. mendeko teknologiara ailegatzeko, aurretik urrats asko eman dira; horietako batzuk erabakigarriak: papera, tinta, inprenta, argindarra, telefonoa, telebista, ordenagailua...

Horien garrantzia izan gabe ere, badira beste asko, gure eguneroko bizimoduan tokia dutenak. Semaforoaren argi berdeak eta gorriak badakigu zer adierazten diguten. Hondartzako bandera berdeak, horiak eta gorriak ere bai. Baina beste zenbait komunikabideren esanahia ahaztua dugu, orain ez ditugu erabiltzen gure eguneroko bizimoduan, eta ia guztiz baztertuta daude gure imaginariotik.

Talai Menditik itsasoan ikusitako balearen berri herriari emateko, hainbat modu zuten: su egitea, zapiak erakustea, txalaparta jotzea... Arrantzaleen kofradian balkoitik bandera bat zabaltzen zuten, arrantzaleei itsaso txarra zela eta ez itsasoratzeke adierazteko. Txorroxkilerok, bere bizikleta eta txorroxtarriarekin herrira etorrita, txilibitu bat jotzen zuen ahoz, etxeoandreek entzun eta sukaldeko aiztoak txorroxtera jaitsi zituzten.

Udalak aguazilaren bidez ematen zien herritarrei udal-txean hartutako erabakien berri: aguazila kalez kale ibiltzen

zen, danborra joaz, herritarrak erakarri eta haiei ahoz, erdi kantari. *Arin y Embileko* fabrikak sirena hotsa zuen, herri osoan entzuten zena, langileei lanera joateko ordua zela abisatzeko.

Eliz dorreko kanpaiak sofistikatuagoak dira altzari-fabrikako sirena hura baino, gauza gehiago adierazten dute, ordu erdi oro zer ordu den azaltzeaz aparte: herritar bat hil dela –kanpaiak bereizi egiten dute hildakoa emakumezkoa, gizonezkoa edo haurra den–, etxeren batean sua piztu dela –nik oraindik iltzatua dut buruan udaletxeak 1964an su hartu zuen eguneko su-kanpaiaren din-din-din–dan-dan-dan beldurgarri hura–, kristauen jai handi baten bezpera dela, meza hasteko ordu laurdena falta dela...

Kanpaiak bezala, itxaferuak ere oraindik bizirik ditugu gure artean. Gehienetan, estropalarien garaipena adierazten dute, eta horri lotutako ospakizuna: alirona. Eta bada beste komunikabide bat oraindik bizirik, sinesten zaila bada ere: matraka. Aurten ere kalera atera dute. Aste Santuko ostegunetik ostiralerako goizeko hiruretatik bostetara izan zen. Antzinako ohiturari eusten hiru oriotar ibili ziren kalez kale. Aste Santuan, ostegunetik igandera ez da kanpairik jotzen, isilik daude, haiek ere dolu seinalean.

Haien ordezkia da matraka eta herritarrak esnatzeko baliotua, bostetan hasten diren kalbarioetara joan daitezten. Martin Peronak adierazi zuenez, Orion matraka eliza bezain zaharra omen da.

Gero eta jende gutxiago joaten da matraka jotzera; aurten, Martin, Jokin eta Joseba. Aurreko urtean ertzainen bisita ere izan zuten matraka-joleek, Ertzantzaren hiru automobiletan alajaina, herritar batek salatuta, lo egiten ez ziotela uzten eta. Aurki, matraka polita politikoko emango digute. Ea, nolako komunikabideak erabiltzen dituzten, boto eske; ea nolako mezuak! Eta, matraka isiltzean, ea haietako zeinek botatzen dituen itxaferuak!

Hari-mutur eta korapilo asko Motondo hitz egiterako garaian



Motondoko irudia altueratik, goitik, hartuta . KARKARA

Oria erriorearen meandroen albo batean kokatzen da Orio herria.

Izatea zordio Oriok Orio ibaiari. Bizitzeko aukera eman die itsasadarrak oriotarrei, bale arrantzara joateko ontziak egiten baitziren erriorean; baina, ontziak ez ezik, Orio ibaiari irabazitako lurrak larre eta nekazal ustiapenerako erabiltzen ziren.

Aberatsa da oso Orioko itsasadarra.

Eta, aberastasuna aniztasunean neur-tuz gero, Motondo ekosistema aberatsa dela esan daiteke.

66 kilometroko luzera du eta 17.4040 metro karratuko azalera. Orion 76 Ha ditu eta Aian 24 Ha.

Garrantzi komunitarioko eremu

Motondo babestua izateko arrazioen zerrenda luzea da oso; landareriaren

eta animalien espezie ugari daude eta padurek are bereziagoa egiten dute.

Horregatik guztiagatik, 2003an garrantzi komunitarioko eremu izendatu zuten; eta, ordutik, Natura 2000 sarearen barnean dago.

Berreskuratzeko lehentasuna

2005ean Eusko Jaurlaritzak Motondo berreskuratzeko Plana egin zuen. ZEC izendapena jaso zuen 2010 urtean, non Motondo berreskuratzeko plana aurreikusten zen. Udalak diru laguntza eskatu zuen berreskuratzeko plana egiteko eta 2011n Aranzadiri esleitu zitzaion huraidaztea.

2012an oinarrizko proiektua idatzi zen, eta, urte berean, URA agentziarekin hitzarmena sinatu nahian zebiltzala, Udalak lurrengatik ordaindutakoa berreskuratzeko modua bilatu nahi izan zuen hitzarmen proposamenean.

2.061.471,52 erotan erosi zen

2007 urtean Orioko Udalak Motondo osatzen zuten lursail gehienak erosi zituen. Urte horretako martxoan eskriturak sinatu zituen garai hartan alkate zen Ramon Etxeberriak.

Udalaren erosketak Orioko herritar guztiak egin ditu Motondoren jabe. Baina, orain, eztabaida ondorengoa da: *zertarako erosi zuen Udalak Motondo?*

Bildu

Erantzunik ez

Zertarako erosi zen? Azalpenak erosleak eman beharko ditu, EAJ alderdiak alegia. Eskatu izan ditugu eta isilik gelditzen dira, behiak trenari begira bezala. Gure lehentasuna Motondo berreskuratzea da, dirua berreskuratzearen zain egon gabe padura urreztatzea. Diru laguntza lortu dugu legealdi honetan, baina beste bi alderdiek ez dute nahi izan. Lanean segituko dugu.

Orain

Mota ondoan dagoen lursaila

Behin eta berriro Motondori irtenbidea emateko zerikusia eta zer esana duten erakundeen teknikari eta politikari guztiak eseritzeko eta garapena adosteko eskatu diogu alkateari. Erakundeen eskuduntzetatik datoz erantzukizunak eta betebeharrak eta horiekin datoz jarri beharreko baliabideak. Guztion diruak -2 milioi inguru- eta interesak daude jokoan. Guztion mesederako izan dadila.

EAJ

Ondarean inbertitu xahutu ordez

Udalak Motondo erosi zuenean EAJ zen alkatetzat zuen alderdia. Lur eremuko jabeek lursaila saltzeko asmoaren berri eman zion Udalari. Erosteko erabakia hartzeko herriaren ondasun patrimoniala emateaz gain, kontutan izanik interes bereziko gunea zela, eremua ondoen babestuko zuen erakundea Udala izango zenaren argudioak lehenetsi ziren.

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Txirrindulari itzulua Aian



Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko 5. etapa gure herrian amaitu zen, eta 6. eta azken etapa, Aian hasi eta bukatu zen.

Mikel Landak irabazi zuen ostiralekoa, eta erlojuaren kontrako azken etapa, Tom Doumolinek, Purito Rodriguez izan zelarik itzulua eraman zuena.

Giro ederrean, ikuskizun aparta eskaini ziguten eta Aian jendetza bildu zen. Lana erruz egin genuen, baina antolaketa bikaina izan zen.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Krokodiloen bideo eta argazkiak www.oriokoikastola.eus webgunean



Egiptoko Nilo ibaitik krokodilo txiki mordoia etorri da gure ikastolara bistan. Jolas, dantza, abesti eta eskulan ugari egin ditugu berauei buruz ikasiz eta azkenik, dantzatxo txiki bat egitera ere ausartu gara. Ondoren bideo txiki bat osatu dugu argazki batzuekin eta noski krokodiloen dantzarekin. Hori ikusi nahi baduzue sartu ikastolako webgunean –oriokoikastola.eus– eta ea gustuko duzuen. Eta lasai hartu krokodiloak itzuli dira eta Nilo ibaira.

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Errioxara eskiatzera



Goizeko 06:15ean gelditu ginen. Oso goiz eta urduri; gure lehen eski eguna Valdezcarayen! Ailegatu ginen. Bi orduko ikastaroa egin eta eskiatzea zer den jakin genuen. Ez pentsa bideotan ikusitakoarekin zerikusia duenik, lehenengo eguna gogorra da. Beroa, hotza, elurra kolkotik barrura, erori, jaiki, eskularrua galdu, pista urdinetik jaitsi, bazkaldu, barreak, pista gorritik saiatu, nekea, poza... Azkenean azkar pasa zait eguna, datorren urtean berriro!



Rut Atxega

Kaskoa: traba ala beharrezkoa?

Orain dela gutxi, 16 urtetik beherakoek kaskoa erabili behar dutela esaten duen lege berri bat zabaldu da, eta Oriora ere iritsi da. Lege honen bitartez, Otik 16 urte bitarteko guztiek kaskoa erabili beharko lukete Orioko kaleetan, bestela udaltzainak norbait kaskorik gabe ikusiz gero, isuna jarriko

Lege honen aurka nago. 8-16 urte bitartekoek bizikletan ibiltzeko nahikoa trebetasun dute, eta Orion zehar bidegorriak daudenez, ez dut arriskurik ikusten. Nire ustez, adin horretako jendeak kaskoa erabiltzea ez luke derrigorrezkoa izan behar, hautazkoa baizik.

Nik 15 ditut, eta jada badakit orain dela 10 bat urtetatik bizikletan ondo ibiltzen, eta ez dut kaskorik behar; beste jende asko bezala. Orain, lege hau jarri dutenetik ez naiz etxetik bizikletan ateratzen, ez zaidalako kaskoa batere gustatzen. Bidegorritik ibiltzen baldin banaiz, errepideetako seinaleak errespetatzen baditut, eta nahikoa trebetasun badut, kaskoak zer tarako behar?

Lege hau jarri nahi bada, 55 urtetik gorako jendearentzat jarriko nuke, horrela ondo irudituko zitzaidan, izan ere, adin horretan bizikletan ibiltzeko trebetasuna galduta dago, horren ondorioz, lurrera erori eta mina hartzeko arrisku gehiago dago. Baina hala ere, ez dut beharrezko ikusten kaskoa erabiltzea gutako inork, bakoitzak ikusi behar du zer behar duen eta zer ez.

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ESTALDURDIA - LARRUMETERIA 16:00DE 17:00 JAI EGUNEZKO

7:00 - 20:30 7:00 - 13:30

TEL: 943 891 00 87

XABIER URRETA BIZKALIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Aletzen automatizak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arantzala, 51 20810 OLEBU

LORETXU JATEKIA

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

HABILETA HELBURETZAKO JANTZIAN

ROSA

GARBINE ARRILAGA

ARITZAGA PAISA 2 - TEL: 943 13 19 49

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAN

libe

dietetika

elkarrizketaren bidez

Eusko gudariak 35 - ORO

943 53 64 94 - 692 23 88 50

libegaitzocentro@gmail.com

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgia
Artrrosia
Zefalua

Masaje terapeutikoa
bentosa
eskuak eta
osteo-patologia

943 13 35 37

Arantzaga kalea, 11 Artea

PERTSIANAK

AKO MIZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

12 hilabete interesik gabe

Elzarra Bideoa

45 € MOULINEX 700W

399 € BEKO

32" 285 €

24" 189 € SAMSUNG

6 € · 8 GB SANDISK

10 € · 16 GB

229 € IGNIS neurri guztietan

beti eskaintza paregabeak!!

TIEN 21 Eusko gudari, 44 · 943 833 881 TIEN 21

2 GURPIL

Baztoiden 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

☎ 943 836 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

Zarautz > Hilerrien kudeaketa

Hileta Zerbitzuak > Hileta zerbitzu orokorrak

Harrespil > Zerbitzu iraunkorra

Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxes: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

KARELA KIROLDEGIA

FISIOTERAPIA ZERBITZUA

1ena Urretagoinena - Kar. 209A, 20443

☐ Kirol patologia

☐ Terapia manualak

☐ Drenajeak ...

50eko deskontua saio baterako

Kupoi hau erakutsita mailatzak 15 arte Info+ 943 89 44 26

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN

Pelotari 5, Orio Zure Konfidantzazko Gertuko Tailerra

943 83 00 34

Hizkuntza minorizatuena bizi dilema

Kritika Beltzean Mintzo

Dokumentala, Garabide elkarteak hizkuntza gutxituen inguruko dokumentala aurkeztu zuen Orioko Salatxo aretoan.



Beltzean Mintzo dokumentalaren aurkeztu zuen Jon Sarasuak . KARKARA

Hizkuntza minorizatuena bizi dilema, ez da euskararena soilik. 5000 hizkuntza inguru daude mundu osoan, eta horietatik gehien-gehienak desagertzeko zorian daude. Garabide elkarteak esperientzia trukeak egiten ditu Latinoamerika eta beste zenbait herrietako pertsonekin. Hangoek hango hizkuntza minorizatuena osasunaren berri ematen diete, eta Garabidekoek euskara biziberritzearen klabeak zeintzuk izan diren ezagutarazten saiatzen dira. Horretarako, hiru alditan, Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak masterra antolatu dute.

Lehenengo egonaldi hartan bildutako materialarekin osatu du Garabidek Beltzean mintzo dokumentala. Itxuraz soila baina edukiz betea: Kitxua, nasa, nahuatl, kaqchiquel, aimara, maputxe eta maia yukatek hizkuntz komunitateen berri izan genuen dokumentala ikustean, eta euskararen biziberritzea nola ikusten duten ere kontatu zuten azken zatian. Ameriketako jatorrizko hizkuntzen arnasetua eta itxaropen taupadak Salatxo aretoan sumatu genituen.

RIKARDO UZKUDUN

Gitarra honen barrunban, gitarra honen burrunban

Kritika Joseba Irazoki

Musikaria, Joseba Irazokik kontzertua eskaini zuen apirilaren 17an, Orioko kultur etxean. Bakarrik egon zen eszenatokian.



Joseba Irazoki bakarrik aritu zen Orioko kultur etxean . KARKARA

Gurkoan normalean baino lasaiagoa izango da, iragarri zuen Irazokik Kultur Etxean sartu aurretik. Areto nagusian, beltzez jantzia, giro intimoa sortu zen: Irazoki eszenatokian eta, harmailan eserita, hirurogei bat lagun, asko jota. Eta bai, ohi baino zertxobait bareago aritu zen, gitarra elektrikoaren soinu zikinenak ez baitziren melodia finagoen aurrean erabat gailendu.

Ahotik *ahora* jo aurretik, aitortu zuen pieza hori jotzen duenean oholtzan ondoan izan ohi dituen adiskideen falta sumatuko zuela. Ez zait iruditzen, ordea, ikusleek hutsunea nabaritu zutenik, bakarrik ere ondo asko moldatzen baita Berako artista. Ikusi besterik ez dago nola erabili zituen, maisutasun osoz, gitarra, danbor baxua, kriskitindun maraka eta beste zenbait tramankulu. Loop stationa bidelagun zuela, esperimentu musikalen laborategi bilakatu zuen eszenatokia.

Ordubete eskas iraun zuen kontzertuak. Denbora nahikoa, nolana ere, zein tankerako artista den erakusteko: polifazetiko, eklektiko, inkonformista.

IBAN LERTXUNDI



Gizartea

Bederatzi egunetako bidaia egingo dute Normandiara

Irailaren 14tik 22ra Britainiara joan nahi duzula? Zaharren babeslekuak antolatuta Normandia ezagutzeko aukera daukazu, eta, bidaiatu ahal izateko, ez duzu zertan bazkide izan behar. Izen-ematea librea da.

Bidaia Orion hasiko da eta autobusean joan dira, geldialdiak eginenez, Britainiako hainbat txoko ezagutzeko; tartean: Nantes, Mont Saint Michel, Bayeux... Esther Pombo izango da gidaria eta zortzi egunetako egonaldiak, hiru izarretako hoteletan egingo dituzte. Informazio gehiagorako 626471423 -Txomin- telefonora deitu. @karkara.eus/orio/1429007340605



HASI TXIOKA

Mahai-inguruari buruz #hauteskundeakOrio traolarekin!



Politika

Gerakineko 3.694.382 euro erabili dira

Altxortegiaren gerakina gastu orokorrak finantzatzeko dagoen diru kontable kopurua da, eta, 2015eko martxoaren 31n, 5.534.000 euroko gerakina izango luke Udalak. 2010eko urtarrilaren 31ko datua 9.758.310 eurokoa zen. Gerakina da fluktuaziorik edukitzen ez duen kontzeptua eta legealdi honetan 3.694.382 euro erabili dira gerakinetik. Diruzaintzaren egoera puntualki udaletxeko kontu korrantean dagoen diru kopurua da, gorabeherak izaten dituen. Une honetan Udalak 7.000 euro zituela

Gizartea

Babeslekuetik La Guardiara, bazkaltzera


La Guardiako Marixa jatetxera joango dira jubilatuta eta pentsionistak maiatzaren 19an. Goizeko 8:30ean abituko dira eta 11:00etan iritsiko dira bodegara. Orduak agindu bezala, hamaiketako jango dute. Zeltibeltiar urmaelera egingo dute bisita gidatua, eta, ondoren, bazkaria izango dute. Bazkalostean dantzaldia egingo da. Izen ematea babeslekuan izango da, maiatzaren 5ean.

Mus txapelketa ere egin zuten eta Antonio Zumeta eta Inaxio Gaztañazpi izan ziren irabazleak.

Kultura

Festibala baino gehiago

Musika laborategia jarri du martxan Gure Bazterrak egitasmoak; eta musika hezkuntzarekin uztartuko dute. Udako kanpamendua antolatu dute, 8 urtetik 14 urte bitarteko haurrentzat, ekainaren 28tik uztailaren 5era. Egondia Getariako Askizu aterpetxean egingo dute.





Gizartea

Udarako hiru plan

Hiru aisialdi aukera antolatu ditu Txurrumuskik. Batetik, 2012an jaiotakoentzat, Uda txokoa antolatu dute, non ekintza ludiko-hezitzaileak egingo dituzten. HH3tik LH6 bitartekoentzat espazio hezitzailea izango da, jolas eta ekintza dinamikoekin, Udaleku irekiak izenpean. Bi ekintza horiek uztailean egingo dira, hilabete guztian. Eta, hirugarren proposamena, abuztuaren 3tik 14ra izango da: Gazte Abenturak. Egunero bilduko dira eta azken hiru egunetan elkarbitzita egingo dute. Izen ematea maiztaren 14an eta 15ean izango da, kultur etxean, 18:00etan hasita. Bilera informatiboa ekainaren 12an izango da, Salatxon.

@karkara.eus/orio/1429007284429



Hezkuntza

La Rochelleko ikasle frantziarrak bisitan Orion

La Rochelle hiriko 48 ikasleko talde bat Orion izan dugu bisitan pazko astean. Collège Pierre Mendès institutuko ikasleek Hondarribiko aterpetxean hartu zuten ostatu; baina beren bidaiaiko aurreneko egunetik ibili ziren Orioko txokoak ezagutzen. Euskal Herriko kostaldea eta euskal kultura ezagutzeko egin duten lau eguneko egonaldia Orion bizi den neska frantziarrak antolatu die, Anaïs Da Silvak. Anaisek dioenez, bidaia hasi besterik ez da egin, izan ere jarraipena eman nahi dio bisitaldiari.

@karkara.eus/orio/1429012116792

Gutxigatik ez zen saria etxean gelditu



@karkara.eus/orio/
1428245680663



Jendez lepo Aiako plaza Txakolin Egunean



@karkara.eus/aia/
1429522495400



Usain eta kolore guztietako loreak Aiako azokan



@karkara.eus/aiaorio/
1429006763957



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

- Logela alokagai -16 metro- etxebizitza berrian. Komun propioa gelatik kanpo eta 40 metroko terraza. Tf: 652 551 550
- Logela alokagai. 100 metro karratu, leku onean. Tf: 657 535 299

Salgai

- 2002.urteko Ford Focus autoa salgai. 218000 km ditu. Motorra tddi 1.8 eta 90 zaldikoa da. Gurpilak berriak, irratia ere berria, USB irakurgailuarekin. Oso egoera onean dago. Prezioa: 1500 € Tf: 639987645
- Salarako altzaria, gereziondoaren egurrekin egindako liburutegia. Neurriak 221,5 x 243,5 x 37,5 dira. Prezioa negoziagarria da. Harremanetan jartzeko deitu 649289154 telefonora.
- Pisia salgai Abaromendin. 61 metro karratu eta

140 metro karratuko jardina. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. 637419729

■ Pisia salgai edo alokagai Orion, Kale Nagusian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Interesatuak deitu 661 679 691 telefono zenbakira..

Lan eskaria

- Garbiketa lanak, zahar nahiz helduen zaintza eta etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume gaztea. Tf: 636 188 388 -Mayerling-.
- Lan bila dabilen emakumea. Sukaldari titulua eta esperientzia jangelan eta zerbitzari lanetan; baita haurren zaintzan eta garbiketan. Tf: 695 914 242
- Lan bila nabil ume nahiz zaharrak zaintzen edo garbiketan -barnekoa edo kanpoko- Tf:

634 920 471 -Maria Jose-.
 ■ Esperientzia zaintzan eta garbiketa lanetan. Azkenekoz baserri batean egin dut lan hiru urtez. Telefonoa: 674123293 -Claudia Patricia-.

■ Ikasketaz ingeniari mekanikoa, 30 urteko esperientzia soldadore lanetan. Gaztelera, Ukrainiera, Errusiera eta Polakoa hitz egiten ditut. Langilea naiz eta lan bila nabil. 674 946 663 edo 602 628 206 -Bohdan-.

■ Asteburuetako lan bila pertsona helduen zaintzan. Paperak araututa eta erreferentziekin. Tf: 663117579

■ Bertako emakumea lan bila. Portal eta ofizinen garbiketan esperientzia, adinekoen zaintzan titulua. Tf: 61711291

■ Neska oriotarra, umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota klase partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. Tlf.: 671743088. Ainhua

■ Esperientzia eta erreferentzia dituen neska lan bila dabil. Haurren eta helduen zainketa, baita beste edozein lanerako prest ere. Paperak araututa. Telefonoa: 664 681 908

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	03:45 eta 16:07	09:47 eta 22:04	☾
02	04:21 eta 16:40	10:23 eta 22:39	☾
03	04:55 eta 17:12	10:57 eta 23:14	☾
04	05:28 eta 17:45	11:30 eta 23:49	☾
05	06:01 eta 18:17	12:04 eta ____	☾
06	06:36 eta 18:52	00:24 eta 12:40	☾
07	07:12 eta 19:29	01:01 eta 13:17	☾
08	07:53 eta 20:11	01:42 eta 13:58	☾
09	08:39 eta 21:01	02:28 eta 14:46	☾
10	09:35 eta 22:01	03:21 eta 15:42	☾
11	10:44 eta 23:14	04:25 eta 16:50	☾
12	12:02 eta ____	05:37 eta 18:05	☾
13	00:32 eta 13:17	06:51 eta 19:17	☾
14	01:44 eta 14:22	07:57 eta 20:22	☾
15	02:46 eta 15:18	08:55 eta 21:18	☾
16	03:40 eta 16:07	09:46 eta 22:09	☾
17	04:30 eta 16:53	10:33 eta 22:56	☾
18	05:16 eta 17:37	11:18 eta 23:42	☾
19	06:00 eta 18:19	12:00 eta ____	☾
20	06:43 eta 19:01	00:26 eta 12:42	☾
21	07:26 eta 19:21	01:09 eta 13:24	☾
22	08:09 eta 20:04	01:53 eta 14:07	☾
23	08:55 eta 20:51	02:39 eta 14:53	☾
24	09:46 eta 21:43	03:29 eta 15:44	☾
25	10:45 eta 22:47	04:24 eta 16:42	☾
26	11:52 eta ____	05:26 eta 17:48	☾
27	00:16 eta 12:59	06:30 eta 18:54	☾
28	01:20 eta 13:58	07:30 eta 19:53	☾
29	02:16 eta 14:46	08:21 eta 20:44	☾
30	03:03 eta 15:28	09:06 eta 21:28	☾
31	03:45 eta 16:07	09:47 eta 22:08	☾

ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA

- 1ean eta 6an, Etxeberria.
- 2an eta 3an, Azaldegia.
- 4an, Larrañaga.
- 5ean eta 11n, Mutiozabal.
- 7an, G. Artiñano.
- 8an, Iriarte.
- 9an eta 10ean, Zulaika.
- 12an, Etxeberria.
- 13an, G. Artiñano.
- 14an, Azaldegia.
- 15ean, Zulaika.
- 16an eta 17an, Iriarte.
- 18tik 22ra, Lasa.
- 23an eta 14an, Larrañaga.
- 25ean, G. Artiñano.
- 26an, Azaldegia.
- 27an, Zulaika.
- 28an, Iriarte.
- 29an, Larrañaga.
- 30ean, Mutiozabal.
- 31n, Mutiozabal.

- Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

SALGAI

BARAKA TABERNA

Aukera bikaina

Prezio negoziagarria
 TF: 660 084 885



sinergia FISIOTERAPIA IKERKETA

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTABURAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIA, PILATES, ABDOMINALETAKO SIMNASIA, HIPOPRESIOA (GAN)

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
 TF: 943 130 577 685 718 595



Hautagaiak mahai-inguruan

Maiatzaren 24an udal hauteskundeak izango dira. Alderdiek adostu dituzte beren zerrendaburuak eta berekin lanean arituko diren taldekideak ere. KARKARAK hauteskundeei begirako mahai-ingurua antolatu du, ohi bezala. Maiatzaren 7an izango da, 19:00ean, Orioko kultur etxean. EH Bildu, EAJ, Orain eta PSOEko kideak egongo dira.

Orio

Artisau azoka

■ Maiatzak 3, artisau azoka, goiz eta arratsalde, herriko plazan. Kataluniatik etorritako erraldoiak kalez kale.

Irteera

■ Maiatzak 16, Arkaitzpe elkarteak antolatutako urteko irteera bazkide guztientzako. Kortezubin hamaiketako eta Bermeon bazkaria. Irteera goizeko 9:00etan, autobus geltokian. Izena emateko epea maiatzaren 3an amaitzen da eta elkartearen bertan edo 649 228 787ra deituta egin daiteke.

■ Maiatzak 31, Kukuarri eguna, Talai Mendi Elkarrekin Antolatuta.

Hauteskundeak

■ Maiatzak 7, hauteskunde mahai-ingurua, alderdi bakoitzeko zerrendaburuarekin, 19:30ean, kultur etxean.

■ Maiatzak 24, udal hauteskundeak.

Bizikleta Martxa

■ Maiatzaren 9an, Natur Zientzien arlo-

az bizikleta martxa.

Antzerkia

■ Maiatzak 8, *100 metro karratu* antzerkia, 22:30ean, kultur etxean. Sarrerak aldez aurretik erosi behar dira, 5 eurotan.

Erakusketa

■ Maiatzak 11 eta 22, Juan Mari Olaizolaren Artetik artera pintura erakusketa, goiz eta arratsalde, kultur etxean.

Ipuin-kontalaria

■ Maiatzak 14, *Roland pirata eta Pello arpoilaria; itsaso zabaleko istoriak* ipuin kontaketa 5-8 urteko haurrentzat, 18:15ean, kultur etxean.

Musika

■ Apirilak 24, Kontzertu Zinematografi-koa, 20:00etan, San Nikolas elizan.

■ Apirilak 25, Kontzertua Loatzo eta Danbolin musika eskolen eskutik, 18:00etan, Ikastola aurreko plazan

■ Maiatzak 15, *Amasak* musika emanaldia Mendizabal eta Furundarenarekin, 22:30ean, kultur etxean.

■ Maiatzak 22, *Giranice*, kultur etxean.

Formakuntza

■ Maiatzaren 23an, Emozioak Haurtzaroon tailerra Isabel Fusterren eskutik, egun osoan, Zingiran. Kimabek antolatua. Informazio gehiago: kimabeformakuntza@gmail.com.

Garagardo azoka

■ Maiatzak 29tik 31ra, Garagardo azoka plazan, Arraun Elkarrekin Antolatuta.

Aia

Azoka

■ Apirilak 25, XIII. landare berezien azoka, 11:30ean, Iturraran Parketxean.

■ Apirilak 26, XIII. landare berezien azoka, 11:30ean, Iturraran Parketxean.

■ Maiatzak 30, Andatza-Aia auto igoera.

Podologoia

■ Apirilak 25, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.

■ Maiatzak 30, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144.



EMETERIO RIBAR
ORIOKO EH BILDU



IRMA DOMINGORENA
ANAPRIEDE URDEZKATZEN
PSOE

JOSE ANJEL ZALDUA
EAJ PNV



MIRIAM URANGA
ORAIN



HAUTESKUNDEAK

2015

MAHAI INGURUA

EHIZARRIA
NOIZ
NON

JAKES GOIKOETXEA
MAIATZAK 7 19:00ETAN
ORIOKO KULTUR ETXEA

IKUSI
ZUZENEAN
KAKARA EUS
ATARIAN



ANTILATZALEA

